

Donostia, 2016ko apirilaren 22a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

ZEZENKETEN GAINKO KONTSULTARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, 2016ko apirilaren 18an PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Antitaurina Orain plataformak 10.000 sinadura aurkeztu zituen martxoaren 16an, zezenketen gaineko kontsulta bat egitea eskatzeko Udalari. Sinadura horiek aurkeztu eta handik aurrera, prozedura bat eta gehieneko epe batzuk bete behar direla jartzen du Herritarrei kontsultak egiteko araudiak herritarrei kontsulta hori egiteko. Hala, apirilaren 14an, jakin genuen baliozkotzat jo zituztela araudiak eskatzen dituen 8.000 sinadura.

Apirilaren 18an, alkateari galdetu genion ea zergatik esan zuen denen aurrean bistan zegoela abuzturako egiteko ez zela denborarik izango, horrekin nabarmen geratu baitzen badela egutegiren bat pentsatuta. Eta, hori guztiori, Kontsulta bultzatu dutenei ezer ere jakinarazi gabe.

Alkateak ez zuen egutegiaren gaineko azalpen handirik eman batzordean, araudiak jarritako epeak beteko direla besterik. Dena dela, adierazi zuen, kontsultak, egiten den egunean egiten dela ere, ez diola aurtengo eskaerari eragingo. Beraz, kontsultaren emaitzak ez die aurtengo zezenketei erasango.

Abuzturako kontsulta egiteko behar adina denborarik izango den edo ez den zer iritzi duen adieraztea goiti-beheiti, guk uste dugu egutegi aurreikuspen bat, behintzat, aurkeztu behar zuela alkateak, araudiak jartzen dituen epeak-eta adierazita, eta Donostia Antitaurina Oraini ere eman behar ziola horren berri. Horren tokian, ordea, aurtun ere Illunben abuztuan zezenketak izango direla adierazi du, eta jaso diren 10.000 sinadura horiek ez dutela haren arretarik merezi, forma alderdiak besterik.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA



1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio egutegi bat aurkezteko ahalik eta azkarren, eta Donostia Antitaurina Orainek zezenketen gainean planteatutako kontsulta egiteko prozesuak izango dituen epeak zehazteko.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio behar den bezala jakinarazteko Donostia Antitaurina Orini zezenketen gaineko kontsulta egiteko jartzen den egutegia.

Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.